

## ZER DA BOLOGNA

Galdera simple honi erantzuteko idatzi da liburuxka hau. Izan ere, guztiok dakigu Bologna Prozesua (BP) unibertsitatea aldatzen ari den zeozer dela, baina nondik dator? Nor da martxan jarri duena? Zertarako?...

Ikasleoi erantzunak ezkutatu dizkigute eta horrexegaitik Ikasle Abertzaleak liburuxka hau kaleratzea erabaki du, modu labur eta ulergarri batean Bologna Prozesuaren nondik norakoak azaltzeko. Horretarako munduko egoeraren inguruko irakurketa bat egingo dugu lehenik. Honela, honek hezkuntza munduan nola eragiten duen ulertuko dugu eta beraz Europar Goi Hezkuntza Esparrua (EGHE) eraikitzeko darabilten logika argi eta garbi ikusi ahaliko dugu.

## MUNDUA

### Kapitalismo neoliberala

Gaur egun munduan indarrean dagoen sistema ekonomikoa Kapitalismoa da eta honenpean gobernu eta erakunde gehienek politika neoliberal bat darabilte. Hitz horien esanahia denek ulertu arren, ez dakigu zehazki definitzen. Ez da hori helburua orain, oinarrizko ulermen bat lortzeko beharrezkoa den definizio praktikoa bat baizik.

*Kapitalismo neoliberala, ondorengo ezaugarriak dituen ekonomiaren antolaketa bat da:*

- *Estatuen parte-hartze minimoa bilatzen da.*
- *Ekonomia interes pribatuen eskuetan dago.*
- *Helburu bakarra aberastea da, errentagarritasun ekonomikoa. Ondorioz, jendartearen aurrerapena eta ongizatea alboratu egiten dira.*
- *Aberastasuna ahalik eta esku gutxienetan pilatzen da, aberatsak aberastuz eta txiroak txirotz.*

Definizio hau ez da zuzena, guztiz argudiagarria eta simplea da, baina hezkuntza munduari begira ondorengo ulertzea da garrantzitsua: **neoliberalismoak dena, munduko materia eta ariketa guztiak esku pribatuetan jarri nahi ditu, hauetatik etekin maximoa bilatuz, horretarako jendartearen egoerari erreparatu gabe.**

**“Munduko 500 pertsonarik aberatsenek 416.000.000 pobreenek baino diru gehiago dute”**

**“Munduan armatan erabiltzen den diruaren %3arekin urtero hiru miloi umeren heriotza ekidin daiteke”**

**“Munduko biztanleriaren %40a pobrezian bizi da”**

### Baina hau nola egiten da?

Asko dira politika neoliberalak higikaritzen duten agenteak: WTO (World Trade Organization) edo MME (Munduko Merkataritza Elkartea), ERT, UNICE... Ez ditugu hemen guztiak azalduko, izan ere bakoitzak bere historia, helburu eta antolakunde bereziak ditu, baina interesgarriena zera da: denek sistema kapitalistaren alde, enpresariaren alde egiten dute. Bakoitzak bere neurriak hartzen ditu sistemaren mesedetan, hau da, ekonomiaren eragile pribatuak etekin handitu ditzaten.

Adibide bat estatuen arteko mugen desagertzea da: aspaldi, estatuek euren mugak zeharkatzen zituzten gaiak oso zerga altuak ezartzen zizkieten euren ekonomiak babesteko. Hau oztopo bat zen ondasunak mundu aberatsean aske mugitzeko, hau da, interes pribatuen aurkako neurri bat zen. Beraz, aipaturiko eragileek muga ekonomikoak desagertzea bultzatu zuten eta gaur egun zerga horiek praktikan desagertuak dira Europar Batasunean. Eta negozio honek ez ditu iada bere garaian ematen zituen etekinak mantentzen, baina...

### Jo puntu berria

Politika neoliberalak jo puntu berria topatu zuen: jendartearen ongizaterako zerbitzuak (osasungintza, hezkuntza, garraioak, posta zerbitzua,...). Jendarteari begirako zerbitzuak izanik, hauen kudeaketa estatuei dagokie (printzipioz jendartearen mesedetan lan egiten baitute) horretarako zergen dirua erabiliz. Sistema honek hobeto edo okerrago funtzionatu dezake baina printzipioz egokiena filosofia horixe da: dena denentzat, denen artean kudeatua. Orduan esan baitezakegu “ongizate jendarte” batean bizi garela. Baina politika neoliberalak elur bola bezala hazten doa eta honako filosofiari bakarrik erantzuten dio: Zegatik eskaini “doako” zerbitzu bat, osasungintza adibidez, jendartearen horren truke ordaintzeko prest badago? Saldu dezagun beraz...

ladanik hasiak dira zerbitzu hauek esku pribatuetan erortzen. Hegazkin konpainiak (Iberia eta Air France) aspaldi pribatizatu ziren, energia konpainiak ere bai, pentsio sistema pribatuak ditugu egun, hospitaletako hainbat zerbitzu kanpo enpresen eskuetan gelditzen ari dira,... Ingurura begiratu besterik ez dugu jendarteren zerbitzura, denon ongizaterako, behar diren gai gehienak salerosketarako produktu soilak direla konturatzeko.

**“Mundu osoko hezkuntza merkatuak autogintza merkatuaren bikoitza balio duela kalkulatu da”**

**“500 enpresarik handienek munduko Barne Produktu Gordinaren %52a mugitzen dute”**

**“Exxon petrolio enpresak Austriak baino diru gehiago mugitzen du urtean. General Motorsek Danimarkak baino gehiago”**

#### **Hurrengo pausua: GATS akordioa**

Baina zerbitzuen pribatizazioa ez da nahikoa neoliberalistentzat, oztopo berri bat topatu dute. Ikatza munduko edozein puntutan erabilgarria den bezala, ez da berdina gertatzen osasun aseguru, lizentziatura unibertsitario eta antzekoekin. Hau da, ekonomiaren hazkunderako beharrezkoa den zerbitzuen mugimenduak oztopatua egoten jarraitzen du. Arazo honi aurre egiteko, WTOk GATS akordioa sinarazi zien munduko estatuei. Akordio horren arabera, zerbitzuen salerosketarako trabak 2010 urterako desagertarazi behar dira (kasualitatea justu urte horretarako Bologna Prozesua amaitu beharra, ezta?), hau da, urte horretarako zerbitzuak pribatizatu eta mundu mailako merkatua osatu behar da.

GATS akordioa aplikatu dutenen artean dago Europar Batasuna. EBk egun bi arazo nagusiri aurre egin behar die: alde batetik, EB ez da gai Ipar Amerika eta Asiako ekonomiei aurre egiteko eta bestetik, Europako enpresen beharrak aldatu egin dira. Iada ez dira goi mailako lizentziatuak behar, prestakuntza minimoa izango duten eta baldintza kaxkarretan lan egingo duten gazte prekarioak baizik. Horretaz konturatu ziren ERTko kideak 1988an unibertsitatea-industria foroa sortu zutenean. (ERT europako 45 multinazionalez osaturik dagoen Europako Enpresarien Mahaia da)

**“Austriak hamarkada hasieran 1.300 milioi euro lortzen zituen urtero hezkuntzaren salerosketatik”**

**“Estatu Batuetan 2000an osasun zerbitzuetan erabiltzen zen diruaren %33,2a esku pribatuetan erortzen zen”**

#### **Beraz Europar Batasunaren xedea...**

Europak ezin duenez ekonomiaren ohiko esparruetan munduko potentziarik handiena izan, bere burua munduko foko kultural bezala markatu nahi du, bertan baitaude mendebaldeko unibertsitaerik ospetsuenak (Oxford, Sorbonna, ...) eta kalitatezko hezkuntza eta ikerkuntza aurreratuak. Eraberean goi mailako ikasleak murriztu behar dituzte, eta oinarriko formakuntza dutenak gehitu, unibertsitatea eraldatuko duen prozesu bat behar du europak. Europako helburu espezifiko hauek, aurrez aipaturiko kapitalismo neoliberalaren helburu orokorrekin nahastu ondoren, ezinbestekoa da lehen bait lehen eraldaketa prozesu bat martxan jartzea, eta honela jaiotzen da Bologna Prozesua.

*Hauek dira bearz, Bologna Prozesuak erantzun beharreko erronkak:*

- GATS akordioa
- Zerbitzuen pribatizazioa, hau da, unibertsitatearen (eta orokorrean hezkuntzaren) pribatizazioa.
- Europa foko kultural bilakatu, munduko eliteak ikastera erakarri.
- Enpresen langile beharrei erantzun: unibertsitario gutxiago eta formakuntza gutxiago gehiago.

**“ERTk bere webgunean onartzen du Lisboako Estrategia, Bologna Prozesua edo Europar Batasunak hartzen dituen erabakietan egiten duen presioa”**

**“Hezkuntza eta formazioa inbertsio estrategikoak dira enpresaren etorkizuneko arrakastarako. Momentu honetatik aurrera Europako enpresen garapen tekniko eta industrialak argi eta garbi eskatzen du Hezkuntza Sistemen eta programen berrikuntza azkar bat – ERT, 1995ko Ekaina”**

**“Hezkuntza Sistemek europar konpetibitate eta enpleguaren mantentzera zuzenduko dira, beti ere XXI. Mendeko enpresen moldeei egokitzeko badira. – Europar Komisioa, 1996ko Abendua”**

---

## **BOLOGNA PROZESUA**

### **Historia laburra**

Bologna Prozesua 1988an jarri zuten martxan Bolognako Unibertsitatearen 900. urteurrena ospatzen ari zirela. Bertan bilduriko errektoreek *Magna Charta Universitatum* dokumentua sinatu zuten, unibertsitateko tradizioen balio sakonak goraipatuz eta hauen arteko herremanak estutu asmoz. Hamar urte geroago, eta ERTren unibertsitate-enpresa foroaren ondorioak jasoaz, Frantzia, Alemania, Italia eta Erresuma Batuko hezkuntza ministroek Europar Goi Hezkuntza Esparrua sortzeko adierazpen bat sinatu zuten Pariseko Sorbonne Unibertsitatean. Azkenik, 1999an Bolognako adierazpena sinatu zuten hiri honetantxe 29 estatuko hezkuntza ministroek. Liburuxka hau idazterakoan, 45 dira agiria izenpetu duten estatuak.

### **Bolognako adierazpena**

Bolognako adierazpena hori besterik ez da, adierazpen bat; ez da lege bat, ez da inor behartzen duen pakto bat. Adierazpenak ildo batzuk markatzen ditu estatuak euren aldatzeko norantza konkretu batean egin ditzaten.

*Hauek dira BPren helburu ofizialak:*

- Titulazio sistema erraz irakurgarri eta konparagarri bat eskuratzea.
- Bi ziklo nagusitan oinarritutako sistema bat hartzea.
- ECTS (European Credit Transfer System) bezalako kreditu sistema baten ezarpena.
- Beharrezko dimentsio europar baten promozioa goi hezkuntzan, garapen Curricularrean enfasi bereziarekin.
- Europako Unibertsitate eta bestelako goi hezkuntza instituzioetako ikasle, irakasle eta langileen mugikortasuna bultzatzea.
- 2010erako EGHE egikaritzea bi urteko faseen bidez, amaieran balantzea egin eta etorkizuneko norabidea markatuko duten Konferentzia Ministerialak eginaz

**“Oinarrizko hezkuntza batean eragin behar dugu eta ondoren berrikuntza [flexibilitatea] hobetzen duten hainbat kompetentzian – Europar Komisioa”**

### Neurriak

Helburu hauek politak dirudite, baita hauek lortzeko planteatzen diren neurriak ere, baina hauen guztien atzean BPK erantzun beharko erronkak topatzen ditugu. Gainera, neurri bakoitzak erronka ezberdinei erantzuten die eta orokorrean den-dena lotuta dagoela ukaezina da. Ikus dezagun nola:

**ECTS:** Europar Kreditu Transferentzia Sistema (European Credit Transfer Sistem). Neurri honekin saltzen dutena iraultza pedagogiko bat da, kredituak lortzeko beste era bat proposatzen baita: klase orduetaz gain, etxean, liburutegian eta internet bidez egindako lan kopuru osoak balioko du kredituak lortzeko. Egia da aldaketa pedagogiko bat beharrezkoa dela unibertsitatean, baina hau egiteko ez da inondik inora beharrezkoa ECTSen aplikazioa. Gezurra da ECTSak horretarako bakarrik aplikatzen direnik. Zergatik orduan ECTSak ezarri?

- 1- GATS akordioari erantzuteko. Hau da, Europa osoko unibertsitateetan kreditu sistema bera izanez hezkuntza produktu bilakatzeko, honela salerosketari ateak zabalduz. Ikatza tona edo kilotan erosten da eta ikasketak ECTS kreditutan (zein kasualitatea BP 2010erako bukatu behar izatea, ez? Hain justu GATS betetzeko epe berbera da!)
- 2- Bestalde, enpresarien eskakizunei erantzunez, ikasleak lan munduaren erritmora egokitu behar dira eta bide batez hauen gaineko kontrola areagotu. ECTSak aukera paregabea eskaintzen du horretarako, izan ere, kreditu hauek lortzeko lan kopuru handiagoa egin behar baitu ikasleak (egun baina %250 gehiago). Honela “full time” ikaslea lan erritmora egokitzen da eta eduki ditzakeen arazoan aurrean ez du denborarik antolatu eta kolektibo moduan jarduteko (akaso arazo hauetaz pentsatzeko ere ez du betarik izango).
- 3- Era berean, ikasleen esplotazio honek unibertsitatea elitizazio bidean jartzen du, izan ere, ikasleek ez dute lan egiteko denborarik eta beraz soilik etxean diru nahikoa dutenak (kontuan izan tasak garestitzen doazela) izango dira goi mailako ikasketak egiteko gai.

**“ECTSekin ikaslea langile bilakatzen da, 40 ordu lan eginez astean, baina lan horregatik kobratu beharrean ordaindu egin beharko du”**

### Graduak – Graduondokoak – Masterrak – Doktoretzak

BPK ikasketak berregituratuko ditu. Graduetan, 3 urtekoak, oso materia oinarrizkoa emango da: materia kognitiboaren (jakintzen) %40 besterik ez da emango eta ikasleek jasotako gaitasunek hartuko dute garrantzia. Graduondoko edo masterrak eduki ultraespezializatukoak izango dira eta oso tasa garestiak izango dituzte (iadanik honelakoak dira masterrak). Azken hauekin konparatuz, ikasleek graduak egiteko nahiko aukera izango dute beraz, baina zeri erantzuten dio berregituraketa honek?

- 1.- Alde batetik, ECTSen eskutik ikasketen homologazioa emateko derrigorrezko pausua da ikasketen egiturak berdinak izatea Europa osoan, beraz, hezkuntza produktu bilakatzeko beste pausu bat dugu.
- 2.- Bestetik, enpresen nahiei erantzunez, unibertsitateak goi mailako Lanbide Heziketak bihurtzen dira:
  - a) Graduetan langile prekario perfektuak sortuko dira: lan erritmora egokituak, jakintza minimoa eta kapazidade nahikorekin eta beraz, izugarriko lan malgutasuna izango dutenak. Kontutan izan behar da ikasleen gehiengoak ez duela graduondokorik egingo eta gradutik zuzenean lanera joango dela.
  - b) Bestetik, graduondokoak enpresen behar konkretuei begirako ikasketak izango dira, azken finean, enpresak eurak izango baitira finantzatuak dituztenak. Honela, enpresek langile espezializatuak izango dituzte, lan mundu konkretu bateko jakintza izango dutenak, jakintza unibertsalaren kaltetan.
- 3.- Elitizazioa. Esan bezala graduondokoen prezioak izugarri handiak izango dira (nahiz eta hauen kostua guztiz ez ordaindu) eta hauek egiten dituzten elitetxoaren barruan ere, eliteak izango dira alorraren erebera. Adibidez, egun, Nafarroako Opus-ean, 66.000 euroko masterra dago enpresen administrazioa eta kudeaketan. Hau ordandu ahal dutenen artean harremanak eta kontaktuak egiten doaz, gerora goi

mailako enpresariak izango direnak, eta horixe da finen ordaintzen duten, kontaktu interesgarrien agenda bat.

**“Helburu nagusia ezagutzetan sakontzen ez duten ikasketa motzak sortzea da, lehenago eta prekarietate handiagoarekin lan merkatura egokitzeko”**

**“Especializazio handiagoa behar duenak dirutza handiko masterrak edo graduondokoak egin beharko ditu”**

### **Kalitate agentziak eta unibertsitateen mailaketa**

Kalitatearen izenean unibertsitate hobeak eta okerragoak sailkatuko dira, oroituz hezkuntza produktu bat dela azken finean. Jatetxeek Michelin izarrak dituzten bezala unibertsitateak mailakatzeko, eliteen mugimendua emango da eta honek Europa foko “kultural” bilakatzen lagunduko du. Bestalde, unibertsitateen arteko kompetentzia izugarri areagotuko da eta unibertsitate publikoek, kalitatea mantendu nahian, finantziaketa sistema aldatu beharko dute hurrengo puntuan aurkezten den bezala.

**“LOUK eta LMDk sorturiko ANECA eta CNE esku pribatuen esku uzten dute hezkuntza publikoaren “kalitatea” ebaluatzea”**

### **Finantziaketa sistema berria**

Kontzeptu berri bat asmatu berria da unibertsitateen finantziaketarako: **finantziaketa kompetitiboa**. Honen arabera, unibertsitate bateko finantziaketa pribatua are eta handiagoa izan, handiagoa izango da jasoko duen finantziaketa publikoa. Hau da, diru publiko gehiago lortzeko diru pribatu gehiago behar da. Gogoratu BPren helburuetako bat, WTOri erantzunez, zerbitzuen pribatizazioa dela. Eta zeintzuk dira unibertsitate batentzat diru iturri pribatuak? Ba enpresak eta ikasleen matrikula tasak. Unibertsitateek bi bide hauek erabili beharko dituzte finantziaketa egoki bat izateko, eta honekin, berriz ere, BPren helburuak beteko dira:

a) Ikasleen matrikula tasak handituz, elitizazioa eta prekarizazioa bultzatzen da. Lehenago azaldu bezala, goi mailako ikasketak etxean diru nahikoa (eta asko) dutenen eskuetan geldituko dira eta gainontzekoek gehienez ere lan mundu prekariora zuzendutako gradu bat jasotzeko aukera izango dute.

b) Enpresen sarrerarekin, lehenik eta behin ulertu beharrekoa zera da, enpresa batek zerbaiten truk emango diola dirua unibertsitateari (enpresariak ez dira altruistak!) eta beraz enpresak unibertsitatearen zati bat erosi besterik ez du egiten. Erosketa horrekin, enpresak bere beharren arabera planteamendua eskainiko dio unibertsitateari, adibidez, enpresa horretan behar diren edukiak irakatsiz klaseetan. Honekin erabat asetzen dira enpresen beharrak eta jakituriaren egoitza izan beharko lukeen unibertsitatea, enpresa baten eskola partikularrean bihurtzen da.

**“Bankuen, multinazionalen eta ikasleen esku utzi nahi da hezkuntzaren kostea”**

**“Ikasleok matrikula ordaindu ahal izateko kredituak eskatu beharko ditugu bankuetan, eurek definitzen dituzten interesen arabera itzuliko ditugunak”**

## **GOITIK BEHERA: APLIKATZAILEAK ETA IKASLEON AHOTSA**

---

Ikus daitekeenez, BP goitik behera datorren prozesua da, normala den bezala, inposaketa moduan datorrena, inori galdetu gabe. WTOtik hasi eta ERT edo Europa mailara gero. Ministroak ondoren eta hauetatik sailburu ezaberdinetara. Azkenik, Unibertsitateko errektoretzara heltzen da “agindua” eta hauek dekanotzetara igortzen dute, azkenik departamenduetararte. Pausuz pausu, BPK eskatzen dituen aldaketak maila guztietan emanez. Goitik beherako inposaketa berri bat.

Baina bolognarena, paperean ematen den prozesua da, WTO, ministro eta hauen artean dena dago paperean. Noiz egiten da BP erreal? Ba errektore, dekanok eta irakasleek martxan, praktikan jartzen dutenean. Paperetik klaseko derrigortasunera, enpresekiko kontratuetara... guzti hau erreal gure fakultateetan egiten ari da! Errektore eta dekanok batzuek gustoko dutelako, eta besteek aurka egiteko inongo asmorik ez dutelako, alfonbra gorria jarria diote BPri, eta gainera eurak dira erreal bilakatzen dutenak.

Horregatik da garrantzitsua BP gelditzeko dekanotza eta errektoretzen asmo puntualak gelditzea. Aplikaziorik egiten ez badute, ez da BPrik izango, paperean bakarrik egongo da, krisia sortuko da. Fakultate bakar batean ez bada ECTSak aplikatzerik lortzen, BP osoa egongo da krisian!

Bukatzeko, argi dago unibertsitatean aldaketa asko eman behar direla, gauza asko daudela hobetzeko. Baina aldaketa hauek planteatzeko nor hobe unibertsitateko komunitatea baino? Nork daki guk baina

hobeto zein arazo dituen Unibertsitateak? Eta jakinda ere, gure hitzak ez al du ezertarako balio Unibertsitatea aldatzen ari diren honetan?

Balio du bai, balio behar du! Unibertsitatea jakituriaren eta kritikotasunaren egoitza berriz ere izango bada bere etorkizunaren inguruko eztabaida zabal bat behar da. Eta eztabaida horretan, ikasle onenak garrantzi berezia du, izan ere, geu gara posible denaren abanikoa inork baino zabalagoa dugunak, eskema kuadrikulatuak gaindi ditzakegun bakarrak; ezinbestekoa da ikasle onenaren inplikazioa.

Denen artean etorkizun hobe bat eraiki dezakegu, egin dezagun.

2006ko azaroaren 17an  
**Ikasle Abertzaleak**